JARDUEREN EGITARAUA

# 26→27

# Arabako Lautadako Kuadrilla



Arabako emakumeon berdintasunerako eta jabekuntzarako eskola

laia.araba.eus

Laia

ARABAKO LAUTADAKO KUADRILLA
CUADRILLA DE LA LLANADA ALAVESA

araba álava
foru aldundia diputación foral

# LAIA Arabako Lautada

## INFORMAZIOA, KONTAKTUA ETA IZEN-EMATEAK

Arabako Lautadako Kuadrillako Berdintasun Zerbitzua

945 30 12 00

arabakolautada.berdintasuna@ayto.araba.eus

Langarikako Bidezidorraren plaza, 4. 01200 Agurain, Araba

www.arabakolautada.eus




**Izena eman behar den jarduueretarako epea:**
ikastaroa hasi baino hiru egun lehenagora arte

**Ludoteka eta garraio zerbitzua:**
jarduera hasi baino hiru egun lehenagora arte

**GURE BULETIN DIGITALEAN IZENA EMAN LAIA.ARABA.EUS BIDEZ**

***#LAIALautada***

Edukien lanketa: Arabako Lautadako Kuadrillako Berdintasun Zerbitzua

LAIAren Idazkaritza Teknikoa: Red Kuorum S.L. – www.redkuorum.eus

Diseinua eta maketazioa: Labox – www.labox.es

Inprimatzailea: Arabako Foru Aldundia

L.G.: LG G 492-2026

@LaiaAraba

laia.araba.eus

# Aurkibidea


LAIA Arabako Lautada 2

Aurkibidea 3

Arabako Lautadako Kuadrillako Berdintasun Zerbitzuaren aurkezpena 6

Erakundearteko koordinazio espazioak 9

LGTBIQ+fobiaren aurkako sarea Araban 11

Eskualdeko Topaketa: Bakoitza mundu bat da 12

Aisialdi eta jai eremuetako esku-hartzeak 14

Gaztelaniazko irakurketa klub feminista 15

Euskarazko irakurketa klub feminista 16

Arabako Lautadako Kuadrillako indarkeria matxistaren biktimei eta bizirik atera direnei zuzendutako laguntza programa 17

SEXAGUZU. Sexualitateari buruzko Informazio Puntua, genero ikuspegitik 18

Maskulinitate berdinzaleak eraikitzeko programa 20

Adineko pertsonei zuzendutako Berdintasun Programa 21

Antzerki feministako tailerra 22

Gorputz sentsibilizaziorako eta gorputzetik ahalduntzeko programa: Cuídame & cuídome! 23

Ahizpatasunerako, Ahalduntzerako eta indarkeria matxisten prebentziorako Programa 24

URBIDE Programa: Sormen zeharkaldia ikuspegi feministarekin 25

Programa: Elkarbizitza loratzea 26

Berdintasunaren aldeko ipuin laburren XI 27

Aniturri Institutuko Hezkidetza Tailerrak 28

Joko hezkidetzaileen jardunaldia Dulantzi ikastetxean 29

Langarikako latsariei omenaldia 30

Landa eremuko hausnarketa tailerra: “Sobre la tierra, bajo la sombra” 31

Joko Hezkidetzaileen XVI. Jaialdia 32
Arotzeria tailerrak: Locas por las herramientas 33
Hitzaldia: Feminismoa, migrazioa eta antiarrazakeria 34
Zineforuma: Nôs Dança (Rui Lopes Graça) 35
Liburu aurkezpena: Así empezó todo 36
Tailerra: Osasun ginekologikoa eta sexu eta ugalketa osasuna 37
Tailerrak: Zoru pelbikoa lantzen, eta zerbait gehiago... 38
Zineforuma: Hanami (Denise Fernandes) 39
Solasaldia Mari Luz Estebanekin: Andrezaharraren manifestua 40
Jolasleku berdintasunaren alde:
Ipuin kontaketa: Hegan egiten duten ipuinak 41
Tailerra: Honelakoa naiz eta nire burua maite dut 42
InVISIBLES: AMA-DAS dokumentala 43
Berdintasun tea: Kulturarteko topaketak 44
Arabako Landa Eremuko Emakumeen
Sarearen XXVII. Topaketa 45
Sexualitate somatiko, feminista eta ez normatiboari
buruzko hastapen ikastaroa 47
Antzerkia: HERTZ.
Desde lo más profundo de la patata 48
Buru osasuna eta generoa tailerrak: Sintomatik testuingurura 49
Kontzertua: “Muñeca Brava” 50
Gazteleku berdintasunaren alde: AAren superbotereak 51
Hitzaldia: Emakumeak eta gerrak 52
Antzerkia: Descóseme las alas 53
Antzerkia: Estoy muerta de humor 54
Antzerkia: Marea Baja 55
Antzerkia: Vecinas diversas, vecinas dispersas 56
Solasaldia Clara Serrarekin: El sentido de consentir 57
Emakumeen memoriak ere Araba eraikitzen du 58

# Arabako Lautadako
## *Kuadrilla*






# Arabako Lautadako Kuadrillako Berdintasun Zerbitzuaren aurkezpena

Arabako Lautadako Kuadrilla osatzen dugun 8 udalok gure eskualdeko Emakumeen Berdintasunerako eta Ahalduntzerako Eskolaren programa aurkezten dizuegu.

Ale honetan, iraila, urria eta azaroa bitartean egingo diren programa, proiektu eta jarduera guztiei buruzko informazioa aurkituko duzue, baita ikasturte osoan zehar irauten duten programa iraunkor batzuei buruzkoa ere. Liburuxka honetan aurkezten diren proposamenak urtean zehar egiten den programazio osoaren zati bat baino ez dira; programazio hori kuadrillak berak, hura osatzen duten 8 udalek eta herri-mugimenduek gauzatzen dute. Horregatik, liburuxka hau kontsultatzeaz gain, adi egotera animatzen zaituztegu udalen webguneetara eta Lautada Gozatu hamabostekariaren programaziora, gure eskualdeko mugimendu feministen eta LGTBIQ+ mugimenduen sareak ahaztu gabe.

Azken hamarkada hauetan, gure lurraldean migratutako biztanleria handitzen ari da. Horregatik, kuadrillak, erronka berri hori jasota, migratzaileei zuzendutako Harrera Plan bat abian jartzea erabaki du. Eta Berdintasun Zerbitzutik ere Lautadako auzokideen arteko bizikidetzan lagundu nahi dugu, sortzen ari diren kulturarteko espazioak indartuz eta kulturarteko elkarrizketarako espazio berriak sortuz, begirada feminista batetik.

Izan ere, berdintasunak ez du uniformetasunik esan nahi, baizik eta aniztasuna aitortzea eta bizikidetza modu kolektiboan eraikitzea, duintasunean, errespetuan eta pertsona guztien aukera berdintasunean oinarrituta. Elkarrizketatik, enpatiatik eta parte-hartze bateratutik soilik egin ahal izango dugu aurrera inork bere eskubideak mugatuta ikusiko ez dituen gizarte baterantz, ez bakarrik sexua edo generoa dela eta, baita jatorria, kultura edo egoera migratorioa dela eta ere.

Gainera, aurten Kuadrillako Berdintasun Kontseilua indartzen ari da, mugimendu feministarekin, emakume-elkarteekin, LGTBIQ+ kolektiboekin eta berdintasunaren alde lan egiten duten beste eragile sozial batzuekin komunikazio-bideak sendotzeko, eta herritarrek, gune horren bidez, erakunde publikoen —eta, zehazki, gure kuadrillan garatzen diren berdintasun politiken— gaineko zaintza egiteko tresnak izan ditzaten.

Halaber, indarkeria matxistaren biktimen prebentzioari, arretari eta erreparazioari dagokienez, aurten onartu da Aguraingo udalerrian aisialdi eta jai eremuetan **sexu edukiko erasoei, jazarpenei, diskriminazioei eta jokabide gogaikarriei aurre egiteko Protokoloa**; kuadrillako udal batetik onartzen den lehen protokoloa da. Halaber, eskualde osoan onartuko da **indarkeria matxistaren prebentzioa hobetzeko eta biktimen arreta eta erreparaziorako erakundearteko jarduera- eta koordinazioko III. Protokoloa**.

Bestalde, Arabako Lautadako Kuadrillako Berdintasun Zerbitzutik azken urteotan abian jarritako programa iraunkorrak bultzatzen jarraituko da:

- **SEXAGUZU** sexualitateei buruzko informazio-puntuarekin jarraitzen dugu; Lautadako biztanleria osoari zuzenduta dago, aurrez aurreko arreta emango du Agurainen, Dulantzin eta Araian, eta posta elektronikoz ere bai: sexaguzulautada@gmail.com
- **Indarkeria matxistaren biktima eta bizirik atera diren emakumeentzako Laguntza Egitarauari** jarraipena emango zaio; kuadrillako emakume guztiei irekita dago.
- **Gizon-talde egonkorra,** patriarkatuak gizonengan dituen eraginei buruz hausnartzeko; hamabostean behin biltzen da Barrundian.
- **Gaztelaniazko irakurketa klub feminista.**
- **Euskarazko irakurketa klub feminista.**
- **Ederki zahartzea genero ikuspegiarekin**, Asparrenako udalerriko adinekoei zuzendutako programa.
- **URBIDE, sormen zeharkaldia ikuspegi feminista batetik.**
- **Cuídame & Cuídome**, gorputz sentsibilizaziorako eta gorputzetik ahalduntzeko programa, Barrundiako Udalean.
- **Ahizpatasunerako, ahalduntzerako eta indarkeria matxisten prebentziorako programa.**


II BERDINTASUN PLANA
ARABAKO LAUTADAKO KUADRILLA
II PLAN PARA LA IGUALDAD DE MUJERES Y HOMBRES DE LA CUADRILLA DE LA LLANADA ALAVESA
2020–2023
ARABAKO LAUTADAKO KUADRILLA
CUADRILLA DE LA LLANADA ALAVESA


2018
Arabako Lautadako Kuadrilla
Indarkeria matxistaren biktimei zuzendutako laguntza hobetzeko erakundeen arteko II. koordinazio- eta jarduera-protokoloa

# Erakundearteko koordinazio espazioak

Erakundearteko koordinazio teknikorako espazioak:

ESKUALDEAN INDARKERIA MATXISTAREN AURKAKO II. PROTOKOLOAREN KOORDINAZIORAKO MAHAI TEKNIKOA: erakundearteko koordinazioa du helburu, Arabako Lautadan emakumeen aurkako genero indarkeriaren arreta eta prebentzioa hobetzeko.

BERDINSAREA-EUDEL: sarearen helburua da tokiko gobernuek berdintasunaren alde eta emakumeen eta nesken aurkako indarkeria matxistaren aurka kudeatzen dituzten programak eta zerbitzuak bultzatzea, indartzea, koordinatzea eta ebaluatzea.

LURRALDEKO BERDINTASUN TEKNIKARIEN SAREA ETA AFA.

Koordinazio politikorako espazioa: mahai politikoa, Lautadan berdintasun politiken eta emakumeen eta nesken aurkako indarkeria matxistaren prebentzio-politiken jarraipena eta bultzada egiteko.

Berdintasun Kontseilua: kontseilu sektoriala da, Toki Araubidearen Oinarrien Legean eta 1/2023 Legegintzako Dekretuan aurreikusia, eta emakumeen mugimendu antolatuaren eta erakundearen arteko solaskidetza gunea izan nahi du. Kuadrillan lan egiten duten emakume elkarteek eta bere izenean parte hartzen duten emakumeek osatzen dute. Kontseiluaren helburua da emakumeen eta erakundearen arteko komunikazioa erraztea, demokrazia parte-hartzailean sakontzeko, emakumeen mugimenduaren ekarpenak jasoz Arabako Lautadan bultzatzen diren emakumeen eta gizonen berdintasunerako politika publikoen diseinuari, ezarpenari eta ebaluazioari dagokienez. Bilerak egiten dira: haietan, arloko jardueren bilakaeraren berri eman eta kontsultatzen da, etorkizuneko ekintzak adosten dira eta lehentasunak ezartzen dira.


ERASO MATXISTARIK GABEKO JAI ASKEAK
BELDUR BARIK
ASKEAK
POR UNAS FIESTAS LIBRES DE AGRESIONES MACHISTAS
araba álava
foru aldundia diputación foral
Laia
Arabako Mendialdeko Kuadrilla
Cuadrilla Montaña Alavesa
Arabako Errioxa
Rioja Alavesa
AIARALDEA KUADRILLA

## LGTBIQ+fobiaren aurkako sarea Araban

Lumagorri elkarteak bere presentzia sendotzen du Araban, sexu-orientazioagatiko edo genero-identitate zein -adierazpenagatiko diskriminazioa eta indarkeria errotik kentzeko helburuarekin, LGTBIQ+ pertsonen ahalduntze feminista sustatuz. Ikusguneen bidez —jaietako eta aisialdiko jardueretako informazio-guneak—, laguntza, entzutea eta baliabideak eskaini zaizkie eraso LGTBIQ+fobikoen biktimei, errealitate hori lurraldean ikusarazten lagunduz. Aurrerapenak gorabehera, erronkek bere horretan diraute: diskriminazioa, ikusezintasuna edo gorroto-delituak. Lumagorrik Arabako herrietan erreferentziazko pertsonen sarea sortzearen alde egiten du, gune seguruak eta indarkeriarik gabeak sustatuz. Erakunde- eta komunitate-laguntza funtsezkoa izan da.

**Arabako Foru Aldundiaren, jai-batzordeen, udalen, administrazio-batzarren, kolektiboen eta berdintasun-teknikarien konpromisoa funtsezkoa izan da lan hau garatzeko.**

Egin dezagun Araba LGTBIQ+fobiarik gabeko lurralde.







## Eskualdeko Topaketa: Bakoitza mundu bat da

Aurten ere, topagune honetan parte hartzera gonbidatzen zaituztegu, emakumeen eta gizonen arteko berdintasuna bultzatzeko eta emakumeen eta LGTBIQ+ pertsonen aurkako indarkeria matxista errotik kentzeko.

Oraingoan, kultura desberdinetan emakumeen eta gizonen arteko berdintasunaren alde lan egiteko esperientzia desberdinei buruz hausnartu nahi dugu. Gero eta pluralagoa eta anitzagoa den gizarte batean, kulturarteko elkarrizketa funtsezko tresna da errespetuan, justizian eta berdintasunean oinarritutako bizikidetza guneak eraikitzeko.

Topaketa honek hausnarketarako, entzuteko eta ikasteko gunea izan nahi du, jatorri kultural desberdinetako emakumeen (eta gizonen) artean, aniztasunak dakarren aberastasuna balioan jarriz eta, aldi berean, emakume migratzaile askok diskriminazioaren, desberdintasunaren eta euren eskubideak osotasunean baliatzeko oztopoen aurrean dituzten erronkak aitortuz.

Kulturarteko ikuspegitik, berdintasunari buruzko hiru begirada desberdinetatik landuko da gaia, esperientziak, ezagutzak eta jardunbide egokiak partekatuz, gizarte inklusiboago baterantz aurrera egiteko. Topaketak kulturen arteko ulermena erraztu nahi du, aurreiritziak eta estereotipoak partekatu, eta laguntza sareak eta gizarte partaidetza sustatu.



| | |
|---|---|
| Dinamizatzaileak | **Anita Hichaicoto / Hajar Samadi / Tania Cañas**<br>Moderatzailea: **Aitziber Pérez de Cárcamo**<br>Mikroantzerkia: **Andrea Aristondo** |
| Data eta ordutegia | **Urriak 17, 2026**<br>Larunbata, 11:00-15:00 |
| Egitaraua | **11:00** Erakunde harrera eta jardunaldiaren aurkezpena<br>**11:15** Testuinguruaren aurkezpena: berdintasunari eta kulturartekotasunari buruzko elkarrizketa mahaia, hainbat ikuspegitatik<br>**12:30** Kafe - Atsedenaldia<br>**13:00** Talde lana<br>**13:45** Proposamenen bateratze lana<br>**14:30** Mikroantzerkia: Cero potasio<br>**14:45** Jardunaldiaren amaiera |
| Tokia | Donemiliagako Udalaren gela multifuntzionalak – Erdoñana |
| Norentzat | Herritarrak |
| Hizkuntza | Elebiduna |
| Antolatzailea - laguntzailea | Arabako Lautadako Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako Kontseilua<br>Arabako Lautadako Kuadrilla<br>Donemiliagako Udala<br>Arabako Foru Aldundia |
| Informazioa eta izen-ematea | Haurtzaindegi zerbitzua eta doako garraio zerbitzua Lautadako herrietatik, aldez aurretik eskatuta<br>945 30 12 00<br>arabakolautada.berdintasuna@ayto.araba.eus<br>eta LAUTADA GOZATU aldizkaria<br>Baita ere: laia.araba.eus hileko buletina, sare sozialak eta kartelak bidez |



# Agurain

## Aisialdi eta jai eremuetako esku-hartzeak

### Jaietan emakumeen aurkako indarkeria matxistarik gabeko guneak

Aguraingo Udalak onartu du Aguraingo udalerrian aisialdi eta jai eremuetan sexu edukiko erasoei, jazarpenei, diskriminazioei eta jokabide gogaikarriei aurre egiteko Protokoloa. Hala, Aguraingo jaietan, urrian, indarkeria matxistaren aurkako protokolo hori praktikan jarriko da jai eta aisialdi eremuetan, indarkeria matxistaren balizko biktimen prebentziorako, arretarako eta akonpainamendurako.

| | |
|---|---|
| Dinamizatzaileak | **Aguraingo mugimendu feminista \| Aguraingo Udala** |
| Data eta ordutegia | **Bereziki urriak 3 eta 10, 2026<br>eta jai guztietan zehar** |
| Tokia | Jai eta aisialdi eremuak, Agurain |
| Norentzat | Herritarrak |
| Hizkuntza | Elebiduna |
| Antolatzailea - laguntzailea | Aguraingo Udala/ Aguraingo mugimendu feminista<br>Jai eta aisialdi eremuetan lan egiten duten pertsonak eta erakundeak<br>Aguraingo Udala Arabako Lautadako Kuadrilla |
| Informazioa | 945 30 12 00<br>arabakolautada.berdintasuna@ayto.araba.eus<br>eta LAUTADA GOZATU aldizkaria<br>Baita ere: laia.araba.eus hileko buletina, sare sozialak eta kartelak bidez |




## Gaztelaniazko irakurketa klub feminista

Con Tintas Feministas

Hilean behin bilduko gara irakurketak partekatzeko eta, gainera, hala erabakiz gero, txandaka egingo dugu inguruko herrien artean. Agurainen hasiko gara eta, klubean izena ematen duzuen emakumeen arabera, hurrengo saioak kuadrillako beste herri batzuetan egingo ditugu. Gure kuadrilla hobeto ezagutzeko eta elkarrengana gehiago hurbiltzeko modu bat ere bada.

Eta onena: oso ondo pasatzen dugu.

| | |
|---|---|
| Dinamizatzaileak | **Christina Werckmeister Lacarra**, Filologia Klasikoan lizentziaduna eta Genero Berdintasuneko masterduna |
| Data eta ordutegia | AURKEZPENA:<br>**Urriak 19, 2026**<br>Astelehena, 18:00-20:00<br>**Hileko hirugarren astelehenean, ordutegi berean** |
| Tokia | Aurkezpena Manu Yanke aretoan, Agurain<br>Saioen Tokiak lehen saiora joaten diren emakumeekin erabakiko dira |
| Norentzat | Emakumeak |
| Hizkuntza | Gaztelania |
| Antolatzailea - laguntzailea | Arabako Lautadako Kuadrilla<br>Arabako Foru Aldundia |
| Informazioa eta izen-ematea | 945 30 12 00<br>arabakolautada.berdintasuna@ayto.araba.eus<br>eta LAUTADA GOZATU aldizkaria<br>Baita ere: laia.araba.eus hileko buletina, sare sozialak eta kartelak bidez |




## Euskarazko irakurketa klub feminista

### Lerroetatik kanpo

Euskaraz idatzitako literatura ona partekatu eta gozatuko dugu eta, aldi berean, begirada zabalduko dugu euskal feminismoaren eta nazioarteko feminismoaren historia ezagutzeko. Izan ere, eleberriek, poesiek, saiakerek, eleberri grafikoek, iritzi artikuluek... inspirazioa eta pentsamendua pizten dizkigute ahalduntzerantz eta kulturarteko elkarrizketarantz, berdintasunetik.

Esperientziak partekatzeko gunea ere bada, marjinetatik kanpo daudenekin ere... eta beste kultura eta bizi-esperientzia batzuei buruz ikasteko. Kluba benetako ahalduntze eta aberaste gune pertsonala da.

| | |
|---|---|
| Dinamizatzaileak | **Rosario Schmidt Lizarde**, filologoa eta feminista |
| Data eta ordutegia | AURKEZPENA: **urriak 20, 2026**<br>Asteartea, 18:00-20:00<br>**2026: azaroak 24, abenduak 15,**<br>**2027: urtarrilak 26, otsailak 16, martxoak 16, apirilak 27 eta maiatzak 18** |
| Tokia | Lezao kirol guneko bilera-gela |
| Norentzat | Emakumeak |
| Hizkuntza | Euskara |
| Antolatzailea - laguntzailea | Arabako Lautadako Kuadrilla |
| Informazioa eta izen-ematea | 945 30 12 00<br>arabakolautada.berdintasuna@ayto.araba.eus<br>eta LAUTADA GOZATU aldizkaria<br>Baita ere: laia.araba.eus hileko buletina, sare sozialak eta kartelak bidez |





# Arabako Lautadako Kuadrillako indarkeria matxistaren biktimei eta bizirik atera direnei zuzendutako laguntza programa

## Ez gaude bakarrik: topaketarako eta ahalduntzerako gunea

Harrera eta laguntza emozionaleko lana egiteko eta kultura patriarkalaren azpiko indarkeriaren ondoriozko gertaera traumatikoei buruzko kontzientzia hartze indibiduala eta kolektiboa lantzeko gunea da hau.

| | |
|---|---|
| Dinamizatzaileak | **María Gallo**, psikologoa<br>**Ane García-Alzórriz**, gizarte hezitzailea<br>**Norma Vázquez García**, Sortzen Consultoría |
| Data eta ordutegia | **2026ko iraila - 2027ko ekaina** |
| Tokia | Arabako Lautadako Kuadrilla |
| Norentzat | Arabako Lautadako Kuadrillako indarkeria matxistaren biktima eta bizirik atera diren emakumeak |
| Hizkuntza | Gaztelania |
| Antolatzailea - laguntzailea | Arabako Lautadako Kuadrilla eta udal hauek: Agurain, Alegría-Dulantzi, Asparrena, Barrundia, Donemiliaga/San Millán, Burgelu/Burgelu, Iruraiz-Gauna eta Zalduondo |
| Informazioa | Haurtzaindegi zerbitzua, aldez aurretik eskatuta, gutxienez 3 egun lehenago<br>945 30 12 00<br>arabakolautada.berdintasuna@ayto.araba.eus |



## Agurain, Alegría-Dulantzi, Asparrena

# SEXAGUZU. Sexualitateari buruzko Informazio Puntua, genero ikuspegitik

### Ahalduntze pertsonal eta kolektiborako prozesua

Pertsona guztien sexualitateei (pluralean) arreta emateak esan nahi du autoezagutza, auto-onarpena eta nork bere burua den bezalakoa libre eta errespetuz adieraztea sustatzea, banakako ongizateari eta subjektu guztien bizikidetza sinergikoari laguntzeko, bai eremu intimoetan, bai publikoetan. Bistakoa da, sexualitateei arreta ematerakoan, arreta berezia eskaini behar zaiela gazteei —euren sexualitatearen eraikuntzako unerik garrantzitsuenetako bat bizitzen ari baitira— eta zaurgarritasun egoera berezian dauden kolektiboei (aniztasun funtzionala duten pertsonak, migratutako pertsonak, buru osasuneko arazoak dituztenak...), jasan ditzaketen diskriminazioek eragin negatiboa izango baitute euren sexualitatearen bizipenean. Sexualitateen arretak eta, zehazki, sexu aholkularitzak sexu eskubideak betetzea ahalbidetzen du, eta pertsonak ahalduntzea eta euren bizitzez erabakitzea errazten du.

| AURREZ AURREKO ARRETAREN ORDUTEGIAK ETA TOKIAK | | |
|---|---|---|
| **AGURAIN** | **DULANTZI** | **ARAIA** |
| Irailak 16 eta 30 | Urriak 7 | Irailak 23 |
| Urriak 14 eta 28 | Azaroak 4 | Urriak 21 |
| Azaroak 11 eta 25 | Abenduak 2 | Azaroak 18 |
| Abenduak 9 eta 23 | Urtarrilak 13 | Abenduak 16 |
| Urtarrilak 20 | Otsailak 10 | Urtarrilak 27 |
| Otsailak 3 eta 17 | Martxoak 10 | Otsailak 24 |
| Martxoak 3 eta 17 | Apirilak 14 | Martxoak 24 |
| Apirilak 7 eta 21 | Maiatzak 19 | Maiatzak 5 |
| Maiatzak 12 eta 26 | Ekainak 16 | Ekainak 2 |
| Ekainak 9 | | |



| | |
|---|---|
| Dinamizatzaileak | **Emaize**, zentro sexologikoa |
| Data eta ordutegia | **2026ko iraila - 2027ko ekaina**<br>Asteazkenero, aurrez aurreko arreta Lautadan 18:00-19:30<br>Astelehenero, telefono bidezko arreta<br>Sexaguzu Lautada telefonoa: 673 64 76 00<br>sexaguzulautada@gmail.com |
| Tokia | Aguraingo Lezao kiroldegiko bilera gela<br>Dulantziko Kultura Etxea<br>Araiako Kultur Etxea |
| Norentzat | Herritarrak |
| Hizkuntza | Elebiduna |
| Antolatzailea - laguntzailea | Agurain, Dulantzi eta Araiako Udalak<br>Arabako Lautadako Kuadrilla<br>Arabako Foru Aldundia |
| Informazioa | Arabako Lautadako Berdintasun Zerbitzua<br>945 30 12 00<br>arabakolautada.berdintasuna@ayto.araba.eus<br>eta LAUTADA GOZATU aldizkaria<br>Baita ere: laia.araba.eus hileko buletina, sare sozialak eta kartelak bidez |

sexaguzu

Lautada sexualitate-informazio gunea
Punto de información sobre sexualidad en la Llanada



Barrundia

## Maskulinitate berdinzaleak eraikitzeko programa

Lautadako gizonen talde egonkor honen bidez, matxismoaren eraispenean lan egin nahi dugu; sexu bereko pertsonekin eta beste sexuko pertsonekin ahalik eta harreman berdinzaleenak eta sexismo gutxienekoak eratzea bilatu nahi dugu. Helburu nagusia da norberarekin eta gainerako pertsonekin patriarkatuaren eraginetik ahalik eta askeen dauden harremanak eraikitzea.

| | |
|---|---|
| Dinamizatzaileak | **Xabier Molinero Martínez eta Alberto Relloso Pereda,** On:giz elkartea-Ez:Berdin zentroa |
| Data eta ordutegia | **2026: irailak 24, urriak 8 eta 22, azaroak 5 eta 19, abenduak 3 eta 17**<br>**2027: urtarrilak 14 eta 28; otsailak 11 eta 25; martxoak 11 eta 25; apirilak 22; maiatzak 6 eta 20; ekainak 3 eta 17**<br>Ostegunak 18:00- 21:00 |
| Tokia | Herediako Larrarte gizarte eta Kultura etxea, Barrundia |
| Norentzat | 16 urtetik gorako gizonak |
| Hizkuntza | Gaztelania |
| Antolatzailea - laguntzailea | Arabako Foru Aldundia, Herediako Kontzejua<br>Barrundiako Udala<br>Arabako Lautadako Kuadrilla |
| Informazioa | Haurtzaindegi zerbitzua, aldez aurretik eskatuta, gutxienez 3 egun lehenago<br>945 30 12 00<br>arabakolautada.berdintasuna@ayto.araba.eus<br>eta LAUTADA GOZATU aldizkaria<br>Baita ere: laia.araba.eus hileko buletina, sare sozialak eta kartelak bidez |




# Adineko pertsonei zuzendutako Berdintasun Programa

Envejecer bonito con perspectiva de género

**"Ederki zahartzea genero ikuspegiarekin"** 65 urtetik gorako emakumeen eta gizonen arteko topaketa eta hausnarketa talde bat abian jartzeko gunea da, hazkuntza pertsonaleko lan baten bidez gure bizi kalitatea eta genero harremanak hobetzeko, estereotipoak hautsiz; izan ere, *"inoiz ez da berandu gure pentsatzeko eta jarduteko moduak hobetzeko, xedea berdintasuna eta Giza Eskubideen errespetua badira"*.

| | |
|---|---|
| Dinamizatzaileak | **Kontxi López Soria**, Gizarte langilea, sexologoa eta berrelkartze terapian trebatutako profesionala, generoan aditua |
| Data eta ordutegia | **2026: irailak 23, urriak 21, azaroak 18, abenduak 2**<br>**2027: urtarrilak 27, otsailak 24, martxoak 17, apirilak 21, maiatzak 19 eta ekainak 2**<br>Asteazkenak, 11:30-13:00 |
| Tokia | Landa Eremuko Eguneko Zentroa. (LEEZ), Asparrena |
| Norentzat | Zentroko erabiltzaileak eta 65 urtetik gorako pertsonak |
| Hizkuntza | Gaztelania |
| Antolatzailea - laguntzailea | Asparrenako Udala<br>Arabako Lautadako Kuadrilla |
| Informazioa | Asparrenako Udala - 945 30 40 06<br>945 30 12 00<br>arabakolautada.berdintasuna@ayto.araba.eus<br>eta LAUTADA GOZATU aldizkaria<br>Baita ere: laia.araba.eus hileko buletina, sare sozialak eta kartelak bidez |



Asparrena

## Antzerki feministako tailerra

Las mujeres y el ridículo

Antzerki feministako tailer honen bidez, patriarkatuaren atzean dagoen komedia eta absurdoa erakustearen garrantzia transmititu nahi da, funtsezko subertsio tresna gisa, emakumeak kontrolatzeko gailu baten aurrean: irrigarri geratzea eta horri beldur izatea. Tailer hauen asmoa da statu quo-a iraultzea clown-aren tresna, bufoi-pertsonaiak, satira, parodia eta absurdoa erabiliz, eta lortzea, eszenatokian, parte-hartzaileek euren bizi-materialean oinarritutako piezak sortzea, euren begirada alda dadin; bizitza errealean zapalduak izan baziren...

| | |
|---|---|
| Dinamizatzaileak | **Paula Valluerca**. Aktorea, antzerki tailerren dinamizatzailea, feminista eta MadameSeñorita konpainiaren sortzailea |
| Data eta ordutegia | **Asteartero, urriak 13 (2026) - maiatzak 25 (2027)**<br>Asteartea, 19:00-21:00 |
| Tokia | Kontzejuaren antzinako aretoa, Araia |
| Norentzat | 16 urtetik gorako emakumeak |
| Hizkuntza | Gaztelania |
| Antolatzailea - laguntzailea | Asparrenako Udala<br>Arabako Lautadako Kuadrilla<br>Arabako Foru Aldundia |
| Informazioa | Asparrenako Udala<br>945 30 40 06 \| www.asparrena.eus<br>945 30 12 00<br>arabakolautada.berdintasuna@ayto.araba.eus<br>eta LAUTADA GOZATU aldizkaria<br>Baita ere: laia.araba.eus hileko buletina, sare sozialak eta kartelak bidez |




## Gorputz sentsibilizaziorako eta gorputzetik ahalduntzeko programa: Cuídame & cuídome!

Emakume zaintzaileek, besteen beharrak etengabe lehenesten dituztenez, beren beharretatik deskonektatzeko joera dute. Desorekak eragin nabarmena du haien gorputzetan, bai maila psikologikoan, emozionalean, bai fisikoan. Gorputza, babes eta segurtasun gunea izan beharko lukeena, akidura eta tentsio iturri bihurtu ohi da. Horregatik, proiektu honek ikuspegi berritzailea proposatzen du: gorputza ahalduntze prozesuan funtsezko aliatu gisa erabiltzea.

| | |
|---|---|
| Dinamizatzaileak | **Leticia Morales Rodrigo**, psikologoa, psikoterapeuta, gorputz bideratzailea eta dantza-terapeuta |
| Data eta ordutegia | **2026: urriak 13 eta 27, azaroak 10 eta 24, abenduak 15 eta 29**<br>**2027: urtarrilak 12 eta 26, otsailak 9 eta 23, martxoak 9 eta 23, apirilak 13 eta 27, maiatzak 11 eta 25**<br>17:00-19:00 |
| Tokia | Barrundiako Udala |
| Norentzat | 16 urtetik gorako emakumeak |
| Hizkuntza | Gaztelania |
| Antolatzailea - laguntzailea | “Ez Barrundian ez inon, eraso matxistarik ez” kolektiboa<br>Barrundiako Udala<br>Arabako Lautadako Kuadrilla<br>Arabako Foru Aldundia |
| Informazioa | Haurtzaindegi zerbitzua, aldez aurretik eskatuta, gutxienez 3 egun lehenago<br>945 30 12 00<br>arabakolautada.berdintasuna@ayto.araba.eus<br>eta LAUTADA GOZATU aldizkaria<br>Baita ere: laia.araba.eus hileko buletina, sare sozialak eta kartelak bidez |





## Ahizpatasunerako, Ahalduntzerako eta indarkeria matxisten prebentziorako Programa

Barrundian urteak daramatzagu Barrundiako Emakume Taldea kolektiboa indartzeko prozesu batekin.

Ikasturte honetatik aurrera, taldea bere kabuz dinamizatzen eta modu autonomoan bidea egiten hasiko da. Hala ere, udalak prozesu honi laguntzen jarraituko du, lokala eta haurtzaindegi-zerbitzua eskainiz.

| | |
|---|---|
| Dinamizatzaileak | **Susana Teruelo Pérez**, On:giz elkartea-Ez:Berdin zentroa \| Prozesuan parte hartzen duen Barrundiako emakume taldea |
| Data eta ordutegia | **2026: irailak 28, urriak 26, azaroak 9 eta 23, abenduak 14**<br>**2027: urtarrilak 11 eta 25, otsailak 8 eta 22, martxoak 8 eta 22, apirilak 5 eta 19, maiatzak 3, 17 eta 31, ekainak 14**<br>Astelehena, 18:00-20:00 |
| Tokia | Barrundiako Udala |
| Norentzat | Barrundiako Emakume taldea |
| Hizkuntza | Gaztelania |
| Antolatzailea - laguntzailea | Barrundiako Emakume taldea<br>Barrundiako Udala<br>Arabako Lautadako Kuadrilla |
| Informazioa | Haurtzaindegi zerbitzua, aldez aurretik eskatuta, gutxienez 3 egun lehenago<br>945 30 12 00<br>arabakolautada.berdintasuna@ayto.araba.eus<br>eta LAUTADA GOZATU aldizkaria<br>Baita ere: laia.araba.eus hileko buletina, sare sozialak eta kartelak bidez |



## URBIDE Programa: Sormen zeharkaldia ikuspegi feministarekin

### Emakumeentzako sormen topagunea

Zeharkaldi hau euren sormen ahalmena esnatu nahi duten emakumeentzako gozamen gune gisa planteatzen da. Hamabostean behingo jarduera da, sormenari eskainia; bertan, zeharka, gure sormen gaitasunean eragiten duten genero-baldintzapenak berrikusiko ditugu.

| | |
|---|---|
| Dinamizatzaileak | **Yanela Murua García de Albeniz**, psikoterapeuta eta logopeda, generoan trebatua Bartzelonako Unibertsitateko Emakumeen Ikerketa Zentroan (Duoda) eta Salamancako Unibertsitatean |
| Data eta ordutegia | **2026: urriak 8 eta 22, azaroak 5 eta 19, abenduak 3 eta 17**<br>**2027: urtarrilak 7 eta 21, otsailak 4 eta 18, martxoak 4 eta 18, apirilak 8 eta 15, maiatzak 13 eta 27**<br>Ostegunak, 18:30-20:30 |
| Tokia | Erabilera anitzeko eraikina. Donemiliagako Udaletxea |
| Norentzat | Emakumeak |
| Hizkuntza | Gaztelania |
| Antolatzailea - laguntzailea | Donemiliagako Udala<br>Arabako Lautadako Kuadrilla |
| Informazioa eta izen-ematea | Donemiliagako Udala<br>945 30 04 72 \| www.donemiliaga.eus<br>945 30 12 00<br>arabakolautada.berdintasuna@ayto.araba.eus<br>eta LAUTADA GOZATU aldizkaria<br>Baita ere: laia.araba.eus hileko buletina, sare sozialak eta kartelak bidez |




## Programa: Elkarbizitza loratzea

Barrundiako Eskola Txikian

Patriarkatua zure bizitzatik alboratzen joatearen onurak ikusi nahi dituzu? Sistema honek gure sozializazioan duen karga ulertuta, gure jokabide eta patroietako sexismoa desegin ahal izateko. Pertsona asko jada ohartuta daude eredu patriarkalak ez diela balio, euren bizitzak zailtzen dituela harremanetan oro har: bikotekidearekin, seme-alabekin, ikasleekin eta gainerako pertsona eta loturekin. Gainera, eskola honetako ikasleen familia bazara, programa hau zuretzat da.

| | |
|---|---|
| Dinamizatzaileak | **On:giz elkartea-**Ez:Berdin zentroa |
| Data eta ordutegia | Hilean asteazken bat, 2026ko urritik 2027ko maiatzera<br>**2026: urriak 14, azaroak 11 eta abenduak 2**<br>**2027: urtarrilak 13, otsailak 10, martxoak 10, apirilak 14 eta maiatzak 12**<br>17:00-19:00 |
| Tokia | Barrundiako Udala- Ozaeta |
| Norentzat | Barrundiako Eskola Txikiko familiak |
| Hizkuntza | Gaztelania |
| Antolatzailea - laguntzailea | Barrundiako Eskola Txikiko familiak<br>Barrundiako Udala<br>Arabako Lautadako Kuadrilla |
| Informazioa | 945 30 12 00<br>arabakolautada.berdintasuna@ayto.araba.eus<br>eta LAUTADA GOZATU aldizkaria<br>Baita ere: laia.araba.eus hileko buletina, sare sozialak eta kartelak bidez |




Agurain

# Berdintasunaren aldeko ipuin laburren XI

Lehiaketa

11 urte daramatzagu lehiaketa hau antolatzen, eta bertan udalerriko eta kanpoko hainbat pertsonak parte hartzen dute. Helburu bikoitzarekin egiten da: batetik, literatura sorkuntza sustatzea, sormena eta irudimena bultzatzea; eta, bestetik, biztanleria sentsibilizatzea emakumeen eta gizonen arteko benetako berdintasunaren alde eta LGTBIQ+ kolektiboaren aldarrikapenen alde. Ipuin irabazleek saria jasoko dute eta jendaurrean irakurriko dira, azaroaren 25a Emakumeen aurkako Indarkeriak Ezabatzeko Nazioarteko Eguna dela aprobetxatuz.

Hiru kategoria: haurrak, gazteak eta helduak, euskaraz edo gaztelaniaz

| | |
|---|---|
| Data eta ordutegia | **2026ko irailetik azarora**<br>Lanak entregatzeko epea: **urriak 31**<br>Ipuin irabazleen irakurketa eta sari-banaketa: **azaroak 20, ostirala**, 18:15ean, Aguraingo Udaletxean |
| Tokia | Agurain |
| Norentzat | 7 urtetik gorako herritarrak |
| Hizkuntza | Elebiduna |
| Antolatzailea - laguntzailea | Aguraingo Udala<br>Arabako Lautadako Kuadrilla |
| Informazioa | Aguraingo Udala<br>945 30 04 72 \| www.agurain.eus<br>945 30 12 00<br>arabakolautada.berdintasuna@ayto.araba.eus<br>eta LAUTADA GOZATU aldizkaria<br>Baita ere: laia.araba.eus hileko buletina, sare sozialak eta kartelak bidez |

Agurain



## Aniturri Institutuko Hezkidetza Tailerrak

DBHko 4. mailako ikasleei eta Aniturri Institutuko irakasleei zuzendutako tailer hauen bidez, tratu onean oinarritutako bizikidetza ereduak indartu nahi dira; genero sozializazioaren eragina aztertu, eta hezkuntza tresnak eskaini, norberaren identitatea presiorik eta estereotipo inposaturik gabe garatzeko, baita indarkeria matxista gainditzeko ere. Halaber, proiektu berri honekin Aniturri Institutuko Hezkidetza Plana indartu eta osatu nahi da.

| | |
|---|---|
| Dinamizatzaileak | **EMAGIN** |
| Data eta ordutegia | DBHko 4. mailako ikasleak: **2026ko iraila**<br>Irakasleak: **urriak 28 (2026) eta martxoak 11 (2027)** |
| Tokia | Aniturri Institutua |
| Norentzat | DBHko 4. mailako ikasleak eta Aniturri Institutuko irakasleak |
| Hizkuntza | Euskara |
| Antolatzailea - laguntzailea | Aniturri Institutua<br>Aguraingo Udala<br>Arabako Lautadako Kuadrilla<br>Arabako Foru Aldundia |
| Informazioa | 945 30 12 00<br>arabakolautada.berdintasuna@ayto.araba.eus<br>eta LAUTADA GOZATU aldizkaria<br>Baita ere: laia.araba.eus hileko buletina, sare sozialak eta kartelak bidez |

Aniturri BHI Agurain



Alegría-Dulantzi

# Joko hezkidetzaileen jardunaldia Dulantzi ikastetxean

Berdintasuna jolasaren bidez biziz

| | |
|---|---|
| Dinamizatzaileak | **Alara BIK** |
| Data eta ordutegia | **Irailak 18, 2026**<br>Ostirala, 09:30-13:00 eta 15:00-16:30 |
| Tokia | Dulantziko Udala<br>Arabako Lautadako Kuadrilla<br>Arabako Foru Aldundia |
| Norentzat | Dulantzi Ikastetxeko ikasleak |
| Hizkuntza | Euskaraz |
| Antolatzailea - laguntzailea | Dulantziko Udala<br>Arabako Lautadako Kuadrilla<br>Arabako Foru Aldundia |
| Informazioa eta izen-ematea | 945 30 12 00<br>arabakolautada.berdintasuna@ayto.araba.eus<br>eta LAUTADA GOZATU aldizkaria<br>Baita ere: laia.araba.eus hileko buletina, sare sozialak eta kartelak bidez |




## Langarikako latsariei omenaldia

2021ean, Lautadan, garai batean eskualdeko ikuztegiak erabili zituzten emakumeei omenaldiak egiten hasi ziren. Omenaldi hauek, batetik, pertsonen ongizaterako eta osasunerako ezinbestekoa den zaintza lanetako bat aitortu nahi dute; lan hori, ordea, ikusezin geratu da, eta ez du jaso gizartearen funtsezko zutabe gisa merezi duen aitortza soziala. Bestetik, ikuztegiak erabili zituzten emakume adindu arabarrak ikusarazi nahi dituzte, euren lana eta gizarte-ekarpena nabarmenduz. Omenaldi hauek, gainera, aztarna utzi nahi dute antolatzen diren lekuetan, aitortza horrek denboran eta ondarean iraun dezan. Langarikako kontzejuko jaien barruan, garai batean Langarikako ikuztegia erabili zuten latsariei omenaldia antolatuko zaie.

| | |
|---|---|
| Dinamizatzaileak | **Isabel Mellén**, Arabako arte erromanikoan espezializatutako historialari ikertzailea |
| Data eta ordutegia | **Irailak 19, 2026**<br>Larunbata, 11:30 |
| Tokia | Langarikako ikuztegia |
| Norentzat | Herritarrak |
| Hizkuntza | Gaztelania |
| Antolatzailea - laguntzailea | Langarikako Kontzejua<br>Iruraiz-Gaunako Udala<br>Arabako Lautadako Kuadrilla<br>Arabako Foru Aldundia |
| Informazioa eta izen-ematea | 945 30 12 00<br>arabakolautada.berdintasuna@ayto.araba.eus<br>eta LAUTADA GOZATU aldizkaria<br>Baita ere: laia.araba.eus hileko buletina, sare sozialak eta kartelak bidez |




## Landa eremuko hausnarketa tailerra: “Sobre la tierra, bajo la sombra”

Tailer bizi eta parte-hartzaile batean izena ematera gonbidatzen zaitugu; bertan, landa eremuko emakumeen ahotsak, esperientziak eta errealitateak jarriko ditugu erdigunean. Gune hurbil eta abegikorra, hitz egiteko, elkar ezagutzeko eta askotan ikusezin geratzen dena elkarrekin begiratzeko. Topaketan zehar, proiektu honetarako sortutako testuak irakurriko ditugu, herrietako bizitzaren erronkez eta indarguneez hitz egingo dugu, eta landa-eremuko emakumeen gainean oraindik pisua duten estereotipoak desmuntatuko ditugu.

| | |
|---|---|
| Dinamizatzaileak | **Natalia Jiménez Guitián**, Irakurketa kluben dinamizatzailea, hezitzailea eta Irakurketa Errazeko bideratzailea |
| Data eta ordutegia | **Irailak 23 eta 30, 2026**<br>Asteazkenak, 18:30-20:30 |
| Tokia | Manu Yanke aretoa, Agurain |
| Norentzat | Emakumeak |
| Hizkuntza | Elebiduna |
| Antolatzailea - laguntzailea | Arabako Argazkilaritza Elkartea<br>Aguraingo Udala<br>Arabako Lautadako Kuadrilla \| Lectura Fácil Euskadi<br>Editorial Consonni \| Arabako Foru Aldundia |
| Informazioa eta izen-ematea | Izena emateko formularioa:<br>https://forms.gle/f9eASSGhqAnNBM3c8<br>945 30 12 00<br>arabakolautada.berdintasuna@ayto.araba.eus<br>eta LAUTADA GOZATU aldizkaria<br>Baita ere: laia.araba.eus hileko buletina, sare sozialak eta kartelak bidez |

LF LIE

Arabako Argazkilaritza Elkartea Sociedad Fotográfica Alavesa



## Joko Hezkidetzaileen XVI. Jaialdia

Joko hezkidetzaileen jaialdia aukera bat da familian, jolasaren bidez, emakumeen eta gizonen arteko berdintasunari buruz hausnartzeko, haurrek, gazteek zein helduek jolasean ikas dezaketen guneak sortuz.

Jarduera honen funtsezko helburua da aisialdi gune ez sexista bat sortzea, non pertsona guztiek berdintasunez parte hartuko duten, inolako diskriminazio sexistarik gabe. Jokoen aurkezpenak egingo dira, mailegu ludoteka eta euskarazko eta gaztelaniazko joko gunea, eta haurrentzako joko gune bat gaituko da txikienentzat.

| | |
|---|---|
| Dinamizatzaileak | **Grupo Hal**, eventos y alternativas lúdicas S.L.<br>**Alara**, Berdintasunaren aldeko ihes gela |
| Data eta ordutegia | **Irailak 26 eta 27, 2026**<br>Larunbata eta igandea, 12:00-20:00 |
| Tokia | Landederra kiroldegia, Burgelu |
| Norentzat | Herritarrak-Familiak<br>Sarrera librea, Tokiak bete arte |
| Hizkuntza | Elebiduna |
| Antolatzailea - laguntzailea | ARGIA emakume taldea<br>Landederra kiroldegia, Burgelu<br>Arabako Lautadako Kuadrilla<br>Arabako Foru Aldundia |
